

## » zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutikaz plazaeratan ditu. Tarte bikoitzarekin idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAK mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izena eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugalde Kultur Parkea, 30012 Andoain. iritzia@berria.info

## Simone de Beauvoir eta Anjel Lertxundi

«Hizkuntza batzuek ez dute generorik, euskarak adibidez», dio Anjel Lertxundiren hitzigiak (ikus azaroaren 26ko BERRIA). Genero gramatikakalaz ariko ziren, noski, bai hitzegileak eta bai Lertxundi.

Mundua ez da kabitzin hitzegtian, ordea, hizkuntza Xuxen-en kabitzin ez den bezala. Zaldi Eroak «Espainiako erregeek Bill Gates bataru dute» idatzi zuenean (azaroaren 24ko eta 25eko BERRIA), Xuxen-ek ez zion ezer markatuko. Baina marrazkian, erregea ez ezik, erregina ere ageri zen...

Tira: euskarak ez omen du generorik, baina munduak bai, hitzegiek diotena diotela. Eta generoa ez da sexua, ez euskaraz, ez gaztelaniaz eta ez ingelesez: Lertxundi jaio zen garai bertuan, 1949an, Simone de Beauvoir-ek *Le deuxième sexe* idatzi zuen, eta mugarririk jarri orduz geroztiko pentsamenduan: «*On ne naît pas femme: on le devient*». Alegia, ez da jaiotzen emakume; emakume, egin egiten da. Bestela esanda: gauza bat da sexua —biologikoa—, eta beste bat, oso bestelakoa, sexu bati eta beste kultura bakoitzean

eta garai bakoitzean ematen zaizkien rolak. Jaiotzetiko sexuari gizar-teak eta kulturak gehituriko hori guztia da generoa.

Eta errealtate hori izendatzeko, genero erabiltzen da euskaraz, eta gender ingelesez, sexu ez ezik adiera hori ere bai baitu (Webster: «*System of sexual classification based on the social construction of the categories "men" and "women," as opposed to sex which is based on biological and physical differences which form the categories "male" and "female". (...) A concept that refers to the social differences between women and men that have been learned, are changeable over time and have wide variations both within and between cultures*»).

Lertxundik, hitz-zain jokaturik, gaitzetsi egiten du genero-ren erabilera hori, beste hainbatek bezala. Baina izanak izena behar du, eta izena ezkutatu izana ezkutatu nahi izaten da. Emakumeen kontrako indarkeria esanik, indarkeria hori noren kontrako izan ohi den adierazten dugu, ondo adierazi ere; genero indarkeria esanik, indarkeria horren iturburu salatzen dugu, eta ez alferrik. Emakumeen kontrako indarkeria ez da sexuak sortua, generoak sortua baizik. Horregatik konpon daiteke,

gizon-emakumeon rolak aldatuz. Sexuak eragindakoa balitz, kondaturik geundek, sekulako, esporen birtartez ugaltzen hasi arte, behintzat («*La femme n'est victime d'aucune mystérieuse fatalité: il ne faut pas conclure que ses ovaires la condamnent à vivre éternellement à genoux*»).

Garai batean, ez genuen arimarik; orain, generoa ukatzen da, izena ezabatuz. *¡Eppur si muove!* Ez du izenak egiten izana, baina izena ukatuz ez da izana deusztatzen.

Graxi Urmeneta  
Lekunberri

## Ettxerako lurrinak eta titia

Azaroaren 23ko BERRIAN azaldu zenak min egin zidan: emakume baten titia, esku, eta esku horretan lurrin pote bat.

Zer ikusteko ote dauka tiri horrek «Ettxerako lurrinek airea pozoitzen dutela frogatu dute» artikularekin?

Ettxerako lurrin batzuek minbizia sor dezaketela dio artikulua. Bularreko minbizia akaso?

Ettxearen kargua gehiengan emakumeok daramagula azaldu behar du titiak? Ez dut ulertzen.

Irudiaren ondoan maiuskulaz ikusten zen hitza, be-

rriz, *kutsadura* zen.

Harrapazan hori!

Seko harrituta gelditu nintzen. Eta minduta. Ez nuen horrelakorik espero.

Mari Carmen Bidezabal  
Ondarroa

## Faxismoari stop!

Nola daiteke gaur egun, portal baten zenbakia aurkitzeko ahaleginetan gabiltzala, faxistek utzitako ikurrak ikustea?

Falangearen ikurra aldean zeramatenen oroimenak, haiek gauze bide bazterretan eraildako euskal gizon eta emakume askoren oroimenak, eta, orokorrean, herri honek pairatutako sufrimendu eta bortxakeriek oraindik ere ileak tente jartzen dizkigute.

Faxisten diktaduraren menpe hainbeste urte egon ondoren, Santoñako paktoa sinatu zutenen utzikeriaren aurrean, haiek jaurtitako geziek gure bihotzetan sakonki sartuta jarraitzen dute. Ez dugu ahazten, ez bakarkatzen.

(Gure aitite Mateo Aranguena Irazabal eta beste askoren oroimenez, gizarte justuago batean sinesteagatik faxistek errepresialatuak).

Josu Mirena Aranguena Garcia  
Zornotza

## » larrepetit

## Habiak



NAGORE AMONDARAIN

Gure teiatuetan babes bila dabilen txoriak ikusi ditur, bakardadearen ahuleziak taldean biltzera eramanez eta hor ageri dira batak baino besteak kantu ozengoa egiten. Gustura hartuko lukete habia goxo bat hiriko txokoren batean edo herritxiki bateko lastategiaren batean. 2005eko Araba Euskaraz-erako Jose Luis Zumetarik marraztu duen irudian txoriak dira protagonisten. Euskaraz abesten eta hitz egiten duten txoriak. Txori hauek ere habia epelen baten bila ibiliko dira nora ezean hemendik ekain bitartean, Amurrioren zein Araba osoan.

Administrazioak zoritzarrez ez die behar beste habia epelik eskainiko. Txoriei euskara erabiltzeko eskubideak legez aitortu bazaizkie ere, administrazio publikoan ukazioa da nagusi, hau da, legea urratu baino ez da egiten. Aldiz, Euskal Herriaren zerbitzu pribatuetan ia ez dago hizkuntza araudirik, baina Ikea bezalako denda erraldoi batek langileei euskaraz jakitea eskatuko diela esan berri du. Gure harri-durarako, Suediatik datorren dendak eskakizun hori egingo du Barakaldon; hitzak eurarak, gainera, Barakaldoko Ikearen zuzendari Andre de Wit atzerritarra esan ditu. Berdin dit zein asmorekin egiten den eskakizuna: gehiago saltzeko, onargarria izateko, Euskal Herriko habia euskaldunak dekoratzeko... baina benetako ardura-dun lotsabakoek egiten ez dutena egin dute atzerriki etorritakoek.

Zumetaren txoriek habia eske ibili beharko dute oraindik leku askotan, boterearen eta ideologia nagusien menpe dagoelako euskararen erabilpen soziala.

## » galde-eskeak



JOSE LUIS ALVAREZ  
ENPARANTZA  
TXILLARDEGI  
IDAZLEA

**Ekzer abertzalearen barne eztabaidaren ondotik zerk bultzatuta heldu zenion Aralarren aldeko erronkari?**

Alberto Goñi

Ni katalana banintz, ERCKoa izango nintzateke. Zergatik? «Hargatik», erantzun ohi dute gure baseritarrek. Gaur egun, berriro errepikatuko dut, problema gehiago erasten dizkio ETAK Ekzer Abertzaleari (eta Euskal Herriari, oro har) kentzen dizkionak baino. Ezkerter ikuspegi moderno baten barruan hori zinez ulertu eta bideratu duten gizon eta emakumeak Aralarren aurkitu ditut. Eta urratsa publikoki eman behar nuela iruditu zitzaidan.

Azaroaren 30etik aurrera, **Roge Elasco** kazetaria izango da Galde-eskeak ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak iritzia@berria.info helbide elektronikora.

## » www.berria.info

**Nolako neurriak indartu behar dira emakumeen kontrako indarkeria saihesteko?**

<b>Gizarte hezkuntza arlokoak</b>	<b>% 27</b>
<b>Zigor arlokoak</b>	<b>% 2</b>
<b>Bi arloetakoak</b>	<b>% 72</b>

Zigorrek ez du, ez, ezer konpontzen. Baina gutxiago emakumea jipoitu edo erail ondoren bi egunera aske iritertzen direnean. Igartzen da zeinek agintzen duen. Berdintasuna? Hori berdintasuna bada... ez dakit zer izango litzatekeen gizarte matxista bat. Errorra joan beharko genuke, arazoari errotik heldu. Baina hori luzerako lana da, ez da egun batetik bestera egitekoa. Guk nahi bai! Prozesu hori martxan jarrita ere, oraingoz zigorra behar da, bide onera bideratu arte. Baina zigorra, ez esterika hutsa. Guztion artean egin beharrekoa da. Ordua da! Bukatu aurretik, elkartzatua jipoituak izan diren eta lanriskan dauden guztiak. Bihotzez. **lanetik**

## » hitz beste

## Plataforma

ANJEL LERTXUNDI

Ez ote nion gehiagi eman afal garaiko ardoari? Tentsioak eragina ote zen zorbioa? Amesgaiztoren bat ote nuen amarru? Kontua da begiak arranzpalo eta belarriak bi talo utzi zizkidala Teleberriko albisteak: Kultura Sailak hirurehun eta hirurogei mila euro (360.000 euro!) eman gomen dizkio Athletic futbol taldeari UEFAko ez dakit zenbat partidetan *Euskadi* izena eramateagatik kismetetan.

Pako Aristirekin gogoratu nintzen, azken boladan sarritan aipatu baitu politikariak enpresariekin joaten direla kanpora, sekula ez idazleekin. Eta nago egokiera baliatu beharko genukeela idazle eta artisten plarforma bat sortzeko, esanez prest gaudela hemendik kanpo gure hizaldi/erakusketetan *Euskadi* edo *Goragui* edo horrelako zernahi dioden kamisetekin agertzeko.

Futbolariena baino askoz ere merkeago aterako litzaioko gainera Kultur Sailari, kontu segurua da.